

OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA ASANBLADA

Asanblada zk.: 6

Data: 2025-06-19

Ordua: 18:15-19:45

Tokia: Udaletxeko bilera gela

Gai ordena

- Aurreko aktaren onarpena
- 2025 urterako plangintzaren jarraipena
- Indarkeria jasan duten emakumeen arretaren ebaluaziorako egitasmoa
- Indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio egitasmoa zehaztea.
- Galdera eta eskaerak

1. Aurreko aktaren onarpena

Ahobatez onartu da

2. 2025 urterako plangintzaren jarraipena

Gogora ekarri dira Kontseilukideek lehentasunezko lan ildo gisa 2025 urterako identifikatutako erronkak:

- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta hobetzera bideratutako programak garatzea
- Emakumeen etxearen eraketa prozesua
- Zaintza estrategian urratsak ematea
- Indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio egitasmoak garatzea, herritarrei zuzenduta orohar.

Lehenengo lan ildoari dagokionez, martxan dela adierazi da, eta proposamena onartuta, urte amaiera bitartean egingo direla lanak. Emakumeen etxearen eraketa prozesuaren inguruan aipatu da otsaileko bileran adostu zela zein izango zen kontseiluaren papera etxearen egitasmoan, eta hori integratu da antolaketa ereduan. Zaintza strategiaren inguruan, udazkenerako prozesuaren inguruko xehetasunak partekatzea espero dela aipatu da. Azken puntuari dagokionez, bilera honen bidez landu nahi da oinarritzko ideia.

3. Indarkeria jasan duten emakumeen arretaren ebaluaziorako egitasmoa

Aurreko bileran aipatu zen elkarriketak egiteko enpresa bat kontratatzeko beharra. Kontrataziorako proposamena partekatu da. 13.504€-ko aurrekontua izango du lanak (bez gabe), eta kontseiluaren aurrekontu partidatik ordaintzea onartu da.

4. Indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio egitasmoa zehaztea

Ariketa bat egin da, eta haren bidez saiakera egin da jasotzeko zer den egitasmo honekin bilatzen dena, zein helburu ezartzen diren, eta norekin eta nola lantzea proposatzen den.

Ariketa eginda, oinarri adostu bat zehaztu da, eta udalak horren gainean egingo du proposamena.

5. Galdera eta eskaerak

Irailetik aurrerako bilera egunak noiz izango diren adostu da:

- Irailak 18
- Urriak 16
- Azaroak 20
- Abenduak 18

Ez da hurrengo asanbladaren datarik zehaztu.

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 19:45etan.

TRADUCCIÓN

Podeis traducir el contenido de este documento en:

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>

O solicitar una cita telefónica, para un resumen oral del contenido del mismo. berdintasuna@onati.eus